


Pedagogiako Gradua

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea

DONOSTIA-SAN SEBASTIAN



VI. MODULUA:

PEDAGOGIA ESPARRUAK

 **OBJETIVOS DE DESARROLLO SOSTENIBLE**



AURKIBIDEA

VI. MODULUAN GARATU BEHARREKO GAITASUNAK	2
VI. MODULUKO IRAKASGAIK	2
VI. MODULUAREN DIZIPLINARTEKO LANA	3
▪ NOLA LANTZEN DA DILAN-a?	3
▪ EGIN BEHARREKO LANA	3
▪ EKARPENA IKASGAI EZBERDINETATIK	4
▪ EGITEKO PROZEDURA ETA EGUTEGIA	7
TUTORETZA	8
TXOSTENAREN EGITURA	8
EBALUAZIOA	9
▪ TXOSTENAREN ENTREGATZEA	9
▪ EBALUAZIO-ARAUAK	9
▪ EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	10
▪ AURKEZPENA	10
ERANSKINAK	11

VI. MODULUAN GARATU BEHARREKO GAITASUNAK

VI. moduluko diziplinarteko lanaren bidez, ikaslegoak hurrengo zeharkako gaitasunak garatuko ditu (bai titulazioaren berezkoak eta baita 2030-ko Agendaren Garapen Iraunkorrerako Helburuekin lotutakoak ere):

- G1. Praktika profesionalaren esparru ezberdinak ezagutzea, hezkuntza-proiektuak, jardueraplanak eta sareak.
- G2. Ikasketa-trebetasunak garatzea, praktiketako testuinguruetan txertatzeko.
- G3. Esku-hartzeko estrategia espezifikoak identifikatzea.
- G4. Esku-hartzeko esparruetan egoera espezifikoak ebazteko erabaki arrazoituak hartzea.
- G5. Gizarteko testuinguru eleaniztunekin eta kultura aniztunekin lotutako pertsonekin eta taldeekin: hezkuntzako esku-hartzeak aztertzea eta planifikatzea.
- IRAUNK 1. Ezagutza testuinguruan kritikoki jartzea, gizarte, tokiko edota mundu mailako gizarte-, ekonomia- eta ingurumen- arazoekin harremanak ezarriz.
- IRAUNK 2. Baliabideak modu iraunkorren erabiltzea eta ingurumen natural eta sozialean eragin negatiboak prebenitzea.
- IRAUNK 3. Jasangarritasuna sustatzen duten komunitate-prozesuetan parte hartzea.
- IRAUNK 4. Jasangarritasunaren balioekin lotutako printzipio etikoak aplikatzea jokabide pertsonal eta profesionaetan.

Honela, lana arrakastaz burutzen duen ikaslegoak, hurrengo ikaskuntza emaitzak erdietsiko ditu:

- IE1. Pedagogoen jardute profesionaleko hainbat arlo modu kritiko eta erreflexiboan deskribatu eta aztertu egiten ditu.
- IE2. Pedagogoen jardute profesionalari diziplina teoriko ezberdinek egindako ekarpenak identifikatu egiten ditu.
- IE3. Pedagogoen jardute profesionaleko testuinguru ezberdinen analitika abiatuta, detektatutako behar edota aukerei erantzuten dieten teorien oinarritutako estrategia eta esku-hartzeko plan espezifikoak diseinatu egiten ditu.
- IE4. Hezkuntza-txostenak, zeinetan terminologia egokia erabiltzen den eta ideiak modu argi, logiko eta ordenatuan aurkezten diren, zuzen idazten ditu.
- IE5. Hezkuntza proiektuen ahozko aurkezpenak egiten ditu modu egokian, edukia modu argi, ordenatu eta koherentean aurkeztuz, hiztegi formala erabiliz eta jarrera egokia mantenduz, entzuleen interesa eta motibazioa sustatzen duena.

- G2.HO.1.1. Hezkuntza-ekintzek gizartean izan ditzaketen eragin posibleak identifikatzeko oinarritzko ezagutzak ditu.
- G4.HO.2.2. Badaki Iraunkortasunaren aldeko hezkuntza-programak, proiektuak eta jarduerak aztertzen eta ebaluatzen.
- G2.HO.3.2. Bere arlo profesionalean, proiektu eta ekintza jasangarriak proposatzeko gai da.
- G3.HO.3.1. Aldaketaren eragile gisa jarduteko gai da, bere lanbide-arlotik Iraunkortasuna sustatzen duten komunitate-programa eta proiektuen plangintza, ezarpen eta ebaluazio-prozesuetan parte hartuz.
- G4.HO.3.2. GIHaK (kalitatezko hezkuntza, genero berdintasuna...) sustatzeko hezkuntza esku-hartze proposamenak diseinatu, planifikatu, ezarri eta ebaluatu ditzake.

VI. MODULUKO IRAKASGAIK

VI. modulua berran garatu beharreko diziplinarteko lanean, hurrengo irakasgaiak hartuko dute parte:

Irakasgaia	Irakaslea	Posta elektronikoa
Hezkuntza aholularitza eta laguntza	Ander Azkarate	ander.azkarate@ehu.eus
Zailtasunak ikaskuntzan eta garapenean	Lorena Revuelta	lorena.revuelta@ehu.eus
Pedagogia laborala eta formakuntza enpresan	Miren Aguirregoitia	miren.aguirregoitia@ehu.eus
Hizkuntzan irakaskuntza eta ikaskuntza	Asun Martínez	asuncion.martinez@ehu.eus
Hezkuntzako esku-hartzea testuinguru eleanizetan	Oihana Leonet	oihana.leonet@ehu.eus
Komunikazioa euskaraz: hezkuntza eta gizarte arloak	Joana Garmendia	joana.garmendia@ehu.eus
Lanbide eta lan orientazioa	Iker Pérez	iker.perez@ehu.eus
Practicum I		

VI. MODULUAREN DIZIPLINARTEKO LANA

NOLA LANTZEN DA DILANa?

VI. modulua diziplinarteko lana taldekako lan bat da. Lana burutzeko, ikasleek 3-4 ikasleko lantaldeak osatuko dituzte askatasunez. Lantalde bakoitzak eginiko lanaren berariazko jarraipena egingo du esleituko zaion irakasle-tutore batek. Irakasle-tutore horrek diziplinarteko lanerako argibideak emango dizkio taldeari eta lanaren jarraipena eta ebaluazioa egingo ditu bere irakasgaiaren praktika orduetan nahiz tutoretzetan.

DILANerako talde-lanaren jardura irakasgai bakoitzaren ordu kopuru osoaren % 20 izango da. Hau da, eginbeharrak irakasgai bakoitzeko 1,2 kreditu suposatzen ditu, 30 lanordu bakoitzean (120 guztira, 40 aurrez-aurrekoak irakasgai bakoitzeko 2 orduko 5 saio praktikotan)

EGIN BEHARREKO LANA

Lanaren enuntziatua hau da:

“I. Practicum-eko esperientzia edota zuen esperientzia pertsonal edo profesionaletik abiatuta, sakondu nahi duzuen esparru pedagogikoa proposatu aukeratutako hautazko irakasgaien ikuspuntutik, eta zerbitzu edo zentro zehatz bat diseinatu, hain zuzen aukeratutako esparruan esku hartuko duena eta, zuen ustez, hurrengo ikasturteko II. Practicum egiteko oso egokia dena”.

Diziplinarteko lan honen helburua arlo pedagogiko zehatz baterako (ikasle batek edo batzuk ezagututa, Practicum-etik edota esperientzia personal edo profesionalengatik) zentro edota zerbitzu bat diseinatzea da. Azkeneko txosten deskriptibo eta justifikatu batean jasoko den eta dagokion defentsa saioan aurketuko den proposamena egiteko, arlo horretako zerbitzu ezberdin batzuk aztertu beharko dituzte eta, analisi horretatik eratorritako behar edota aukerak, ikasleen esperientziak nahiz ezagutzeak eta modulua osatzen duten irakasgai ezberdinen ekarpenak kontuan hartuko dira.

Moduluko eginbehar nagusia, beraz, hautatutako arloko zerbitzu bat edo gehiago ezagutzea, ezagutza eskualdatzea eta diseinatzea da. Sintesi-lan hau Practicum I irakasgaiarekin lotuta dago, ardatz horren inguruan antolatzen baitira moduluko hautazko sei irakasgaiak, eta horren inguruan garatuko dute ikasleek hainbat gaitasun, ezagutzak eta praktika profesional pedagogikoa eskuratzeko bide emango dienak.

DILANak Practicum I irakasgaiarekin harreman estua duenez, dagokion zentroan edo erakundeetan praktikak egiteko aldia hasi ondoren (5. astea), talde bakoitzak sakondu nahi duen arlo bat proposatuko du, eta ikasle bakoitzak hautatutako moduluko hautazko lau irakasgairen (sei irakasgaitatik) ezagutzak aplikatzen ahaleginduko da, arloko ezagutzak sakontzeko asmoz.

Lana 5 fasetan antolatu egiten da:

1. fasea: *Talde osatzea eta esparrua zehaztea*. Moduluko irakasleek egindako aurkezpenetik, 3-4 ikasle ezagututako talde bakoitzak esku-hartze pedagogikorako arlo bat aukeratu beharko du horren inguruko ezagutza handitzeko (interes edo esperientzia pertsonal/profesionaletatik abiatuta) eta hautaketa justifikatu beharko du.
2. fasea: *Zentroen eta zerbitzuen deskribapena*. Talde bakoitzak aukeratutako esparruari dagozkion existitzen diren (edo ezagutzen dituen) 3 zentro edota zerbitzu deskribatu beharko ditu. Deskripzioak moduluko irakasleen feedbacka jasoko ditu.
3. fasea: *Diseinua*. Aurrekoan egindako analisiak eta moduluko irakasgai ezberdinetan landutakoa kontuan hartuta, talde bakoitzak, moduluko irakasle baten tutoretzapean eta berarekin adostutako eskema jarraituz, zerbitzu edo zentro pedagogiko bat diseinatu beharko du aukeratutako esparruan jarduteko eta pedagogiko baten lan-aukera bat suposatuko duena.
4. fasea: *Hausnarketa eta sintesia*. Lanaren ondorio bezala, talde bakoitzak aukeratutako esparruari hautazko irakasgai ezberdinen aportunaren inguruko hausnarketa bat egin beharko du eta baita DILAN-a egitearen ondorioz egindako ikaskuntzaren ingurukoa ere. Hausnarketa honek idatzizko txostena osatuko du, tutoreak eta moduluko gainontzeko irakasleek ebaluatuko dutena.
5. fasea: *aurkezpena eta defentsa*. Talde bakoitzak zentro edo zerbitzuaren proposamena aurkeztu beharko du. Aurkezpena bai tutoreak eta baita moduluko gainontzeko irakasleek ere ebaluatuko dute.

EKARPENA IKASGAI EZBERDINETATIK

Behin proposamenaren diseinua bukatuta eta txostena bukatzeko, egindako ikaskuntza prozesuaren inguruko hausnarketa bat burutuko da. Bertan hautazko irakasgai ezberdinen analisi-deskripzio bat txertatuko da, irakasgai bakoitzetik proposatzen den gidoia erreferentzia hartuta:

• Hezkuntzarako aholkularitza eta laguntza

Hezkuntzarako aholkularitza eta laguntzaren arlo kontzeptualen ekarpenei buruzko sintesi- eta gogoetalarik bat egingo da, hautatutako esparruarekin lotuta, eta, zehazki, diseinatuko den zerbitzuarekin lotuta. Horretarako, hau proposatzen da:

- Aholkularitza-lanak barne hartzen dituen ardatzak profesionalen arteko laguntza-ardatz gisa ikustea.
- Aholkularitza-prozesuetan jarduera-estrategiak aztertzea.
- Aholkularitza- eta laguntza-lanetan garatzen diren rolak ezagutzea.

Talde-lanaren bidez, honako hau egingo da:

- Zerbitzuaren garapenean aholkularitzaren eta laguntzaren ekarpenak zehaztu. Bai diseinu teorikoari dagokionez, bai egin beharreko balizko praktikei dagokienez.
- Aholkularitza-zerbitzua martxan jartzeak erakundearen ondorioak aurkeztu.
- Sortu beharreko zerbitzuan garatzeko arrakastatsua izango direla uste dugun estrategiak proposatu.
- Proposatutako zerbitzuaren diseinu orokorrari ekarpenak sintetizatu.

• Zailtasunak garapenean eta ikaskuntzan

Irakasgai honen helburua ikaslekoa, hezkuntza maila eta testuinguru ezberdinetan, ikaskuntzan eta garapenean sortzen diren zailtasun ohikoenetatik ondorioztatzen diren beharrei erantzuteko kapazitatea. Horretarako, kondizio ezberdin hauen indikadore nagusien bidez, hauek eta horietatik sortzen diren beharrak identifikatzen eta horietan oinarrituz, prebentzio, aholkularitza eta irakaskuntza-ikaskuntza egoerak optimizatzeko proposamenak egiten ikastea bilatzen da, inklusioa eta ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala (IDU) ardatz izanda. Hala, ezagutza teoriko-praktikoa hautatutako esparrura aplikatzeko kapazak izatea espero da, bere horren zentro edota zerbitzuen diseinuan kontuan hartuta. Zehazko, ondorengo egitea espero da:

- Garapen etapa eta testuinguru ezberdinetan hezkuntza beharrak, hauek erantzuteko zentro edota zerbitzu ezberdinek planteatutako erantzunak eta horiek zailtasunak aztertzea.
- Diseinatutako proposamenetan, egoera/jarduerak detektatzea zeinetan irakaskuntza-ikaskuntza prozeduetan zailtasun zehatzak (norbanako, talde, instituzio mailan etab.) agertzeko aukera handiagoa dagoen.
- Diseinartutako proposamenetan, prebentzio eta garapen arloetan eta baita irakaskuntza-ikaskuntza egoerak optimizatzeko jarduerak txertatzea.

- Landutako ikaskuntza edo garapen zailtasunei erantzuteko prebentzio eta eskuhartzerako tresnak proposatzea, jarraitu beharreko pausuak eta esperotutako prozesuak zehaztuz (norbanako, talde, instituzio mailan etab.).

• Pedagogia laborala eta Formakuntza Enpresan

Irakasgai honetatik, lan munduari pedagogoen ekarpena pentsamendu eta ikuspuntua eman nahi zaio DILANI. Modu honetan, hezkuntza eta formakuntza lanerako alorretan duen garrantzia eta eragina aztertuko dugu.

Lanaren zereginetan, hurrengo informazio atalak landu eta aztertuko ditugu:

- Hezkuntza mundua eta produkzio, enpresario eta lan munduen arteko erlazioak.
- Gaur egun, Hezkuntza mailan dauden beharrak eta aukerak aztertu, geroko lan baten garapenerako prestatuak izateko.
- Hezkuntza-formakuntza beharren diagnostikoa edota proiektu baten garapena.

Irakasgai honen bidez eta DILANarekin bat egiten dituzten gaiak hauek izango lirateke :

1. Pedagogoen lan mundua, funtzioak eta irteera profesionalen ibilbidea.
2. Hainbat erakunde eta enpresetan pedagogoen lan ardurak eta rolak ezagutzea eta horietan sakontzea.

Hau dela eta, interesgarria da pedagogoen lan profilararen bilakaera eta gaur egungo gizartean izan ditzaketen lan berrien aukerak jakitea. Gaur egungo hezkuntzaren beharrak aztertu eta lan munduarekin duen erlazioa ikuspegi kritiko batetik sakondu nahi da.

• Hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza

Irakasgai honen bidez, practicum egiteko zerbitzu edo zentro pedagogiko egokia diseinatzean, irakasgai landutako alderdi psikosoziolinguistikoak kontuan har daitezela lortu nahi da. Zehatz-mehatz, ikasle taldeak honako alderdi hauei buruz gogoeta egin dezaten nahi da:

- Zer hizkuntza-komunitaterentzat izango da zentroa?
- Zein hizkuntzatan kudeatuko da zentroa? Zergatik?
- Zer erabaki hartu beharko luke zentroak hizkuntzen (ofizialak, ez ofizialak) ahozko eta idatzizko erabilerari dagokionez?
- Zentroko jarduerak zein hizkuntzatan egin beharko lirateke?
- Langileen artean hizkuntza-eskakizunak egongo lirateke? Zein?
- Nola komunikatuko litzateke zentroa hara joandako taldeekin zentroan erabiltzen diren hizkuntzak zein diren ez badakite?
- Egongo litzateke hizkuntzak irakasteko sistemaren bat? Baietz erantzunez gero, zer xede izango luke eta nola antolatuko litzateke?
- Egin beharko litzateke motaren bateko analisi psikolinguistikorik zentroko erabiltzaileei? Baietz erantzunez gero, zer motatakoa eta zertarako?

• Hezkuntzako esku-hartzea testuinguru eleaniztutan

Irakasgaiaren helburu nagusia da hezkuntza-eredu eleaniztun eta kulturantzunean lotutako ikaskuntza-egoerak ezagutzea, testuinguru eleaniztunetan hezkuntza esku-hartzea planifikatzen laguntzen dutenak, inklusio-, kalitate- eta ekitate-irizpideak erabiliz. Horrela bada, hezkuntza- eta kultura-aniztasunaren fenomenoak sakonean landuko dira eta aniztasun horri heltzeko hezkuntza-neurriak aztertu eta diseinatuko dira. Irakasgai honen bidez, zehazki espero da ezagutza teoriko-praktikoa hautatutako esparrura aplikatzeko gai izatea, zentro edo zerbitzuaren diseinuan kontuan hartuz. Irakasgai honek DILANari egiten dizkion ekarpenak hauek dira:

- Eleaniztasuna eta hezkuntzaren esparruko teoria-ikerketaren eta hezkuntza-praktikaren arteko lotura aztertzea.
- Hizkuntza aniztasunaren eremu pedagogikoan esku-hartzeak planteatzen dituen dimentsioak eta osagaiak ulertzeko hausnarketa egitea.
- Hizkuntzak ikasteko, Europako Erreferentzia Markoa analisi-tresna gisa erabiltzea, eta ikaskuntza eta hizkuntzen erabilera sustatzen duten hezkuntza-praktikak garatzea, baita beste esku-hartzeko baliabide batzuk ere.
- Hezkuntza-testuingurutan hizkuntzen arlo pedagogikoa aplikatzea, proposamenaren egiturazko erabakietan zein esku-hartzeko proiektuetan.

• Lanbide eta lan orientazioa

Irakasgai honetan, eduki teorikoak eta praktikoak landuko ditugu lanbide- eta lan-orientazioaren arloan sakontzeko, lanbide-orientazioko teoriak ezagutzearen bidez; halaber, karrerarako garapena sakonduko du, eta praktikan jarriko du, analisiaren bidez, gaur egun garatzen diren orientazio profesionaleko programak (bai hezkuntza formalean bai ez-formalean garatzen direnak).

Irakasgai honek DILANari egiten dizkion ekarpenak hauek dira:

- Ikaslea testuinguruan kokatzea lanbide- eta lan-orientazioaren arloan, programa praktikoak aztertuz.
- DILANean garatu beharreko zerbitzua egiteko eta testuinguruan kokatzeko ezagutza teorikoak ematea.
- Talde-lana eta "lantaldearen" kudeaketa sustatzea DILANa egitean kontuan hartu beharreko esku hartzeko oinarritzko tresna gisa.
- DILANean garatu beharreko informazioa bilatzeko eta hautatzeko gaitasunak praktikan jartzea.

• Pedagogiako Practicum I

Pedagogiako Practicum I irakasgaiak ikasleen prestakuntza osoari laguntzen dio, unibertsitateko ikasketak jarduera profesionalera hurbilduz eta testuinguruan kokatutako esperientzia praktikoa bat sustatuz. Praktiken bidez, ikaslea ziur asko bere jarduera profesionala izango dena hurbiltzen da, eta hasierako kontaktua egiten du. Zenbait zentrotan banaka egin beharreko praktikez gainera, taldeko lan bat egin beharko da, eta lan horretan hau egin beharko da:

- Praktiketako zentroaren testuinguru orokorra aurkeztu.
- Zentroaren xede diren esparru soziokulturala eta biztanleria mota identifikatu.

- Programa diseinatu; helburuak, lanen arduraldia eta funtzioak barne hartuta.
- Langileen erantzukizun mailak zehaztu.
- Zentroko premiak identifikatu: metodologia, estrategiak eta baliabideak.
- Programaren ebaluazio-plana diseinatu.

EGITEKO PROZEDURA ETA EGUTEGIA

ASTE A	GELAKO LANA	BERTARATU GABEKO LANA	EMAITZA
16	DILANaren aurkezpen orokorra.		DILANaren gida.
17	DILANA aurkeztea irakasgai bakoitzean.		
18	Taldea osatzea. Kideen gehienezko kopurua: 3/4 DILANaren xede esparrua hautatzea.		Taldeko kideen fitxa. Esparrua definitzea.
19		Tutorea esleitzea.	
20	Hiru zentroak eta eskaini beharreko zerbitzuak zehaztea.	Hiru zentroak eta eskaini beharreko zerbitzuak zehaztea.	
21		Hautatutako esparruari dagozkion benetako hiru zerbitzu deskribatzea.	Hiru deskribapenak aurkeztea
22	Proposatutako zentro edo zerbitzuaren definizioa	Proposatutako zentro edo zerbitzuaren definizioa	
23		Taldearen proposamenean aurrera egitea.	
24	Taldearen proposamenean aurrera egitea.	Taldearen proposamenean aurrera egitea.	
25		Taldearen proposamenean aurrera egitea.	DILANaren zirriborroa aurkeztea
26	Taldearen proposamenean aurrera egitea.	Taldearen proposamenean aurrera egitea.	
27	DILANari hautazkoek egindako ekarpenak eta egindako ikaskuntza prozesua berrikustea.	Taldearen proposamenean aurrera egitea.	
28		Proposamena bukatzea eta ondorioak zehaztea	
29	DILAN lana "pdf" formatuan entregatzea.		DILAN txostena.
30	DILANaren aurkezpen publikoa.		

EGUTEGIA

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
16	urtarrilak 22	23	24	25	26
17	urtarrilak 29	30	31	otsailak 1	2
18	otsailak 5	6	7	8	9
19	otsailak 12	13	14	15	16
20	otsailak 19	20	21	22	23
21	otsailak 26	27	28	29	martxoak 1
22	martxoak 4	5	6	7	8
23	martxoak 11	12	13	14	15

24	martxoak 18	19	20	21	22
25	martxoak 25	26	27	28	29
Udaberriko oporrak martxoak 28-apirilak 5					
26	apirilak 8	9	10	11	12
27	apirilak 15	16	17	18	19
28	apirilak 22	23	24	25	26
29	apirilak 29	30	maiatzak 1	2	3
30	Maiatzak 6	7	8	9	10

**grisez markatutako asteetan irakasgai bakoitzari dagokion saio praktikoan DILANa landuko da.*

- **Urtarrilak 22-26ko astea:** DILANaren aurkezpen orokorra.
- **Otsailak 9:** Taldeko kideen fitxa eta esparruaren zehaztea entregatzea.
- **Otsailak 16:** Tutorearen esleipena.
- **Martxoak 1:** Zentro edo zerbitzuen deskribapenak entregatzea.
- **Martxoak 27:** DILANaren zirriborroa entregatzea.
- **Maiatzak 3:** DILANaren azken txostena entregatzea.
- **Maiatzak 6-10ko astea:** Ikasleen aurkezpena.

TUTORETZA

Talde bakoitzak bere tutorea izango du. Aipatutako egutegiaren arabera antolatuko dute lana. Halaber, gainerako ikaskideen artean DILAN bakoitzak lortutako kalifikazioak jasotzeaz eta banatzeaz arduratuko dira.

TXOSTENAREN EGITURA

DILANaren amaierako txostenak 17-20 orri izango ditu, eta atal hauek edukiko ditu:

- Azala. Honako hauek agertuko dira (or. 1):
 - Lanaren izenburua.
 - Taldekideen izen-abizenak, ordena alfabetikoaren arabera.
 - Tutorearen izena.
 - Lana entregatzen den eguneko data.
 - Ikasten ari diren gradua: Pedagogiako Gradua.
 - Modulu zenbakia: VI. modulua.
- Aurkibidea, atal bakoitza zer orrialdetan dagoen adieraziz (or. 1).
- Lanaren sarrera: esparruaren zehaztea, aukeratzearen justifikazio pertsonal eta teorikoa eta proposamen eta ondorioen laburpena (or. 1).
- Hiru zentro/zerbitzuren deskribapena (3 or.).
- Taldearen zerbitzuaren proposamena (7 or.).
- Ondorioak: irakasgai bakoitzaren ekarpenen analisisa/deskribzioa eta DILAN-eko ikaskuntzen inguruko hausnarketa (3 or.).
- Erabilitako bibliografia edo/eta webgrafia (or. 1).
- Eranskinak: taldeko bileren aktak eta proposamenaren ulermena errazteko beharrezkoak direnak.

Aurkezpen-arauak:

- Marjinak: 2,5 behekoa, goikoa, ezkerrekoa eta eskuinekoa. Lerroartea: arrunta.
- Letra tipoa: Arial 12
- Bibliografia eta webgrafia APAren arauen arabera (zazpigarren edizioa).

EBALUAZIOA

TXOSTENAREN ENTREGATZEA

Maiatzaren 3rako talde guztiek DILAN-eko azken txostena entregatu beharko dute PDF formatuan. Azkeneko txosten hau bai tutoreak eta baita aurkezpen eta defentsan egongo den beste tribunal kide batek ere zuzenduko dute.

EBALUAZIO-ARAUAK

1. DILANa prestakuntzako aldez aurreko baldintza da, Graduko araudi orokorra kontuan hartuta DILANak ebaluazioan duen garrantziari dagokionez.
2. DILANaren nota taldekoa izango da, eta lauhilekoko azken eskola-egunean argitaratuko da dagokion oholean.
3. DILANaren nota VI. moduluko irakasgai bakoitzaren % 20 izango da, baita practicum irakasgaiarena ere. Hau da, DILANaren taldeko lanak gehienez ere 2 puntuko kalifikazioa lortuko du irakasgai bakoitzean: % 75 egindako dokumentuagatik eta % 25 gelan aurkezteagatik.
4. DILANa adierazitako datetan entregatu eta aurkeztubeharko da.
5. Dokumentu idatzia eta aurkezpena ebaluatuko dira.
6. DILANaren azken kalifikazioa "ez aurkeztua" edo 0 eta 2 arteko kalifikazioa izan daiteke.
7. Ebaluazio-irizpideek moduluko gaitasunen garapenari erantzungo diote eta dagozkion errubrikan jasoko dira (ikusi 1. eta 2. eranskinak).
8. Baliteke DILANa gainditzea eta irakasgairen bat gainditu gabe geratzea. Kasu honetan, DILAN-eko nota gordeko da hurrengo deialdirako (ez hurrengo ikasturterako).
9. DILANa entregatu ezean, ez da kalifikaziorik lortuko irakasgaietan.
10. Ikasleak eskubidea du ikasgai batean/batzuetan ebaluazio jarraiari uko egiteko, horrela adierazten badio idatziz ikasgaiko irakasleari lauhilabetearen lehen 9 asteetan. Horrelakoetan, irakasleak sinatu, eta azken ebaluaziorako eskubidea luke, eta irakasleari galdetu beharko dio zernolako izango den azken ebaluazioko proba hori.
11. Moduluan soilik ikasgai bat edo bitan matrikulatutakoak ez du DILANik egin behar.
12. Modulu berean, 3 irakasgai edo gehiagotan azken proba eskatzen duten ikasleen kasuetan, EZ dute DILANik egin behar.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Diziplinarteko lanaren ebaluazio irizpideek moduluko gaitasunen garapenari erantzungo diote eta dagozkion errubrikan jasoko dira (ikusi 1. eta 2. eranskinak).

AURKEZPENA

DILANa **maiatzaren 6-10ko astean** aurkeztuko da. Talde guztiek ikasgelan aurkeztu beharko dute DILANa; horretarako, talde bakoitzak 15 minutu izango ditu gutxi gorabehera. Aurkezpen horretara talde guztiek eta taldekide guztiek joan beharko dute.

Aparteko zeinahi egoera epaimahaiak aztertuko du. Taldeko kide bakoitzak gai izan beharko du DILANaren edozein zati aurkezteko eta defendatzeko.

Aurkezpena egiteko ordua eta lekua behar besteko aurrerapenarekin argitaratuko da. Egun horretan, ohiko eskolak bertan behera geratuko dira.

Aurkezpenean gutxienez bi ebaluatzaile egongo dira:

- a. Tutorea.
- b. Aurkeztuko den DILANaren esparrua ezagutzen duen irakasle bat.

Moduluko irakasle eta ikasle guztiak gonbidatuko dira defentsara.

Honako hauek egindako dokumentua: Lorena Revuelta, Ander Azkarate, Miren Aguirregoitia, Asun Martínez,, Oihana Leonet, Joana Garmendia eta Iker Pérez

ERANSKINAK

1. ERANSKINA: AZKENEKO TXOSTENA ZUZENTZEKO ERRUBRIKA

Adierazlea	Bikaina (0,75)	Nahikoa (0,50)	Eskasa (0,25)
Hiru zentro eta/edo zerbitzuen analisi orokorra	Argi eta garbi aztertzen dira hiru zentro edota zerbitzuen alderdirik esanguratsuenak. Gainera, modu kritiko eta gogoetatsuan deskribatzen eta aztertzen dira beharrak eta aukerak, bai eta zentro eta/edo zerbitzu berriek ase beharreko beharrak ere	Hiru zentroak edota zerbitzuak argi eta garbi aztertzen dira, nahiz eta deskribapenean alderdi esanguratsuenetako bat falta den. Gainera, zentro eta/edo zerbitzuen beharrak eta aukerak deskribatzen eta aztertzen dira eta baita zentro eta/edo zerbitzu berriek ase beharreko beharrak ere, zalantzarik gabe ez bada ere	Hiru zentro edota zerbitzuen azterketa ez da argia eta ez dira horren alderdi esanguratsuenak deskribatzen. Gainera, ez dira deskribatzen hiru zentro edota zerbitzuen beharrak eta aukerak eta ezta zentro eta/edo zerbitzu berriek ase beharreko beharrak ere
Hautatutako zentro edota zerbitzuen eragin sozialaren analisia	Aukeratutako zentro edota zerbitzuen analisiak horien jarduerak erabiltzaileengan (zaugarrien horietan, bereziki) epe labur, ertain eta luzera duen eraginaren inguruko informazioa jasotzen du	Zentro edota zerbitzuen analisisan, horien jarduerak erabiltzaileengan (zaugarrien horietan, bereziki) epe labur, ertain eta luzera duen eraginaren inguruko informazioa falta da	Aukeratutako zentro edota zerbitzuen analisiak ez du jasotzen horien jarduerak erabiltzaileengan (zaugarrien horietan, bereziki) epe labur, ertain eta luzera duen eraginaren inguruko informaziorik
Proposamenaren egokitasuna	Hiru zentro edota zerbitzuen analisisan azaldutako aukera eta beharrek proposamenaren egokitasuna argitasunez ziurtatzen dute. Proposamena aurkitutako aukera eta beharrekin bat dator eta betetzen ditu	Hiru zentro edota zerbitzuen analisisan azaldutako aukera eta beharrak proposamenarekin lotzen dira, baina beharra eta egokitzapena ez da guztiz ziurtatzen. Proposamena aurkitutako aukera eta beharrekin bat dator eta modu partzialean betetzen ditu.	Zaila da lotura egitea proposamena eta hiru zentro edota zerbitzuen analisisan azaldutako aukera eta beharrekin. Proposamena ez dator bat aurkitutako aukera eta beharrekin. Ez ditu beharrak betetzen laguntzen.
Zentro edo zerbitzuaren proposamenaren garapena	Proposamenak modulua osatzen duten diziplina teorikoen ekarpenak islatzen ditu, eta proposatutako zentro edo zerbitzuaren oinarritzko elementuak argi eta zehatz deskribatzen ditu: deskribapen orokorra, helburuak, parte-hartzaileak, organigrama, lanaren planifikazioa, bideragarritasuna eta	Proposamenak modulua osatzen duten diziplina teorikoen ekarpen batzuk islatzen ditu, eta modu argi eta zehatzean deskribatzen ditu proposatutako zentro edo zerbitzuaren oinarritzko elementu gehienak: deskribapen orokorra, helburuak, parte-hartzaileak, organigrama, lanaren plangintza, bideragarritasuna eta finantzaketa, gizarte-eragina, jasangarritasuna eta ebaluazioa	Proposamenak ez ditu islatzen modulua osatzen duten diziplina teorikoen ekarpen gehienak. Zentro edo zerbitzuaren oinarritzko elementu batzuk falta dira eta/edo haien deskribapena ez da zehatza.

	finantzaketa, inpaktu soziala, jasangarritasuna eta ebaluazioa		
Proposamenaren eragin sozialaren analisia	Proposamenak zentroak edota zerbitzuak erabiltzaileengan (zaugarrien horietan, bereziki) epe labur, ertain eta luzera duen eragina neurtzeko erabiliko diren tresnen inguruko informazioa jasotzen du	Proposamenean, zentroak edota zerbitzuak erabiltzaileengan (zaugarrien horietan, bereziki) epe labur, ertain eta luzera duen eragina neurtzeko erabiliko diren tresnen inguruko informazioa falta da edo horiek ez dira behar bezala deskribatzen	Proposamenak ez du jasotzen zentroak edota zerbitzuak erabiltzaileengan (zaugarrien horietan, bereziki) epe labur, ertain eta luzera duen eragina neurtzeko erabiliko diren tresnen inguruko informaziorik
Proposamenaren jasangarritasuna	Diseinatutako proposamenak, detektatutako beharrak eta zein testuingurutan kokatzen den kontuan hartuta, giza-aurreerapenari laguntzen dio	Detektatutako beharrak eta zein testuingurutan kokatzen den kontuan hartuta, ez da guztiz argi geratzen proposamenak giza-aurreerapenari laguntzen dion	Diseinatutako proposamenak, detektatutako beharrak eta zein testuingurutan kokatzen den kontuan hartuta, ez dio giza-aurreerapenari laguntzen
Ondorioen lanketa maila	DILAN-a egitean egindako ikaskuntzen inguruko analisi eta hausnarketa zehatza eta koherentea da eta irakasgai ezberdinen ekarpenen deskribapen argi eta zehatza jasotzen du, nolabaiteko lanketa-maila erakusten duena	Nahiz eta osatu ahal izango litzatekeen, DILAN-a egitean egindako ikaskuntzen inguruko analisi eta hausnarketa koherentea da eta gidako informazioa erreferentzia gisa hartzen duen irakasgai ezberdinen ekarpenen deskribapen bat jasotzen du	DILAN-a egitean egindako ikaskuntzen inguruko analisi eta hausnarketa eskasa da eta ez du irakasgai ezberdinen ekarpenen deskribapenik jasotzen edo, jasotzen badu, gidako informazioan baino ez da oinarritzen
Txostenaren formatua	Txostenak gidan jasotako atal guztiak biltzen ditu eta bere formatuak bertan zehaztutako baldintza formalei erantzuten die. Erabilitako aipamenak eta haien erreferentziak behar bezala eraikita daude erreferentzia gisa APA estandarren 7. edizioa hartuta	Txostenak gidan jasotako atal gehienak biltzen ditu eta bertan zehazten diren baldintza formal gehienei erantzuten die. Erabilitako aipamenak eta haien erreferentziak, gehienetan, APA arauen 7. edizioa erreferentziatzen hartuta behar bezala eraikita daude	Txostenak ez ditu gidan jasotako hainbat atal jasotzen eta ez die erantzuten bertan zehazten diren baldintza formal gehienei. Erabilitako aipamenak eta haien erreferentziak, gehienetan, gaizki eraikiak dira APA

			estandarren 7. edizioa erreferentziatzen hartuta
Txostenaren estiloa eta zuzentasuna	Txostenaren edukia modu argi, logiko eta ordenatuan garatzen da, erabiltzen den terminologia akademikoa eta hezkuntza-arloko berriak da eta ez da akats ortografiko edo gramatikalik agertzen.	Oro har, txostenaren edukia modu argi, logiko eta ordenatuan garatzen da, nahiz eta ideia batzuk nahiko argi ez azaldu edo aurkezpenean akats edo hutsune batzuk egon. Erabiltzen den terminologia, gehienetan, akademikoa eta hezkuntza-arloko berriak da eta akats ortografiko edo gramatikal txiki batzuk baino ez dira agertzen	Txostenaren edukia ez da modu argi, logiko eta ordenatuan garatzen, erabiltzen den terminologia ez da ez akademikoa eta ezta hezkuntza-arloko berriak ere eta ortografia eta gramatika akats ugari agertzen dira

2. ERANSKINA: AHOZKO AURKEZPENAK ZUZENTZEKO ERRUBRIKA

Adierazlea	Bikain (0,75)	Nahikoa (0,50)	Eskasa (0,25)
Edukiaren aurkezpena	Aurkezpena modu koherentean antolatuta dago eta edukia modu argi eta ordenatuan erakusten da. Informazio kantitatea egokia da kontuan hartuta barne hartutako atalak eta eduki errepikaturik eta kontraesanik izan gabe.	Aurkezpena modu koherentean antolatuta dago, nahiz eta inoiz edukiaren azalpena ez izan guztiz argia edo ordenatua. Eduki batzuk beste batzuk baino hobeto garatuta daude edo batzuetan batzuk errepikatzen dira edo kontraesanen bat dago	Aurkezpena ez dago modu koherentean antolatuta, eta edukia ez da modu argi eta ordenatuan azaltzen. Eduki asko gutxi edo gaizki garatuta daude, errepikatu egiten dira eta/edo kontraesanean daude
Erakargarritasuna	Azaldutako edukiak entzuleen interesa eta motibazioa pizten du egindako proposamenarekiko	Azaldutako edukiak, oro har, entzuleen interesa eta motibazioa pizten du egindako proposamenarekiko, nahiz eta batzuetan monotono bihurtzen den	Azaldutako edukiak ez du entzuleen interesa edo motibazioa pizten egindako proposamenarekiko
Hitzezko adierazpena eta hizkuntzaren erabilera	Hizkuntza formala zuzentasunez erabiltzen da: hezkuntzaren eremuko hiztegi akademikoa, aberatsa eta espezifikoa	Hizkuntza formala modu egokian erabiltzen da, nahiz eta erabilitako hiztegia ez den guztiz akademikoa, ezta hezkuntza-eremuko berriazkoa ere	Hizkuntza formala ez da behar bezala erabiltzen: erabiltzen den hizkuntza ez da akademikoa, ezta hezkuntzaren esparrukoa ere.
Gorputz-adierazpena	Hizlariaren eta taldeko gainerako kideen gorputz-jarrera (ahots-tonua, abiadura, bolumena, gorputz-jarrera, keinuak eta begirada) egokia da esku-hartzean zehar.	Hizlariaren eta gainerako taldekideen gorputz-jarrera (ahots-tonua, abiadura, bolumena, gorputz-jarrera, keinuak eta begirada) hobetu daiteke	Hizlariaren eta taldeko gainerako kideen gorputz-jarrera (ahots-tonua, abiadura, bolumena, gorputz-jarrera, keinuak eta begirada) ez da egokia